



Esp. kodea: 2019SSEC0038
Titularra: IDAZKARITZA

Gaia: TXOSTENA-DEDIKAZIOA
Hasiera data: 2019/07/08

TXOSTENA

GAIA: Udal karguen dedikazioari buruzko txostena.

SARRERA

Txosten hau, oposizioko udal karguen dedikazioari buruzkoa da, konkretuki erabateko dedikazioari eta zatikako dedikazioari buruzkoa.

LEGEDI APLIKAGARRIA

Legedi aplikagarria honako hau da:

- 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 33. Artikulua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen (TAOL). 75.2 artikulua.
- Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudia, 2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, onartutakoa (ROF). 13. Artikulua.

ANALISI JURIDIKOA

Apirilaren 7ko, 2/2016 LEGEA, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 33. Artikuluan oposizioaren estatutua arautzen du eta 10.00 biztanletik gorako herrietarako honako hau finkatzen du:

“1.– Hamar mila biztanletik gorako udalerriek bermatu egingo dute oposizioko zinegotzi batek, gutxienez, arduraldi eskusiboa izango duela, udal-gobernua kontrolatzeko eta fiskalizatzeko lana behar bezala egin ahal izateko.”

Artikulu hori interpretatu nahian Eudel-eko Batzorde Eragileak 2017ko apirilaren 10ean egindako saioan honako hau adostu zuen Legearen 33. Artikulu horren inguruan:

“Dedikazioa eskusiboa izango da, eta ez da onartuko dedikazio partzialeko (metagarriak) erregimenik, oposizioan jarduten duten alderdi edo koalizioetako hautetsien kasuan, Euskadiko Toki Erakundeen Legearen 33.1 artikulua betetzeko xedez”



Esp. kodea: 2019SSEC0038
Titularra: IDAZKARITZA

Gaia: TXOSTENA-DEDIKAZIOA
Hasiera data: 2019/07/08

Aipatutako testua talde politiko guztien adostasuna eduki zuen eta gomendio izaera dauka.

Bestalde, azpimarratu beharra dago Legeak finkatzen duena dela gutxieneko kopuru bat. Beraz, Arrasateko Udalari legez badagozkio gehienez 10 zinegotzi erabateko dedikazioarekin, oposizioari gutxienez bat dagokio.

Aipatu, arduraldi horri uko egin ahal zaiola.

Zatikako dedikazioari dagokionez berriz, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena (TAOL). 75.2 artikuluan honako hau ezartzen du:

“Los miembros de las Corporaciones locales que desempeñen sus cargos con dedicación parcial por realizar funciones de presidencia, vicepresidencia u ostentar delegaciones, o desarrollar responsabilidades que así lo requieran, percibirán retribuciones por el tiempo de dedicación efectiva a las mismas, en cuyo caso serán igualmente dados de alta en el Régimen General de la Seguridad Social en tal concepto, asumiendo las Corporaciones las cuotas empresariales que corresponda, salvo lo dispuesto en el artículo anterior. Dichas retribuciones no podrán superar en ningún caso los límites que se fijen, en su caso, en las Leyes de Presupuestos Generales del Estado. En los acuerdos plenarios de determinación de los cargos que lleven aparejada esta dedicación parcial y de las retribuciones de los mismos, se deberá contener el régimen de la dedicación mínima necesaria para la percepción de dichas retribuciones”

Erabateko dedikazioarekin gertatzen ez den bezala, zatikako dedikazio eduki dezaketzen zinegotzien kopurua ez da mugatua, baina bai eskatzen dela lehendakaritza, lehendakariordetza, delegazioak edo horrela eskatzen duten erantzukizunak edukitzea. Bestalde Legeak ez du bereizketarik egiten oposizioko zinegotziak izan edo ez.

ONDORIOAK

Oposizioko udal karguen erabateko dedikazioari dagokionez, gutxienez zinegotzi bat bermatuta edukiko dute. Eta Eudeleko Batzorde Eragileak 2017ko apirilaren 10ean egindako saioan adostuko gomendioari



Esp. kodea: 2019SSEC0038
Titularra: IDAZKARITZA

Gaia: TXOSTENA-DEDIKAZIOA
Hasiera data: 2019/07/08

jarraiki, dedikazio hori eskusiboa izango da, eta ez da onartuko dedikazio partzialeko (metagarriak) erregimenik, oposizioan jarduten duten alderdi edo koalizioetako hautetsien kasuan. Erabateko dedikazio horri uko egin ahal zaio.

Udal karguen zatikako dedikazioari dagokionez legeak ez du bereizten oposizioko zinegotzi izan edo ez eta ez du finkatzen zatikako dedikazioa eduki dezaketen gehieneko zinegotzi kopurua, baina bai finkatzen duela lehendakaritza, lehendakariordetza, delegazioak edo horrela eskatzen duten erantzukizunak edukitzea.

Hala informatzen dut, nire ulermen leialaren arabera, zuzenbidean oinarritutako irizpide hobeko baten mende jarrita.

Arrasaten, 2019ko uztailaren 5ean